

DIRU-ITURRIAK

Nola lortzen dugu dirua?

Gure markak hiru modutan irabazten du dirua:

1. Publizitatea:
 - Sare sozialen bidez eskaintzen ditugun promozio eta deskontuetan oinarritzen gara.
 - Bezeroek gure produktuak erosten dituzte deskontu horiek erabiliz, eta horrek diru-sarrerak ekartzen dizkigu.
2. Komisio bidezko sariak:
 - Beste kosmetiko denda handiekin lan egiten dugu, eta haiek gure produktuak saltzen dituztenean komisio bat jasotzen dugu.
3. Harpidetzagatiko sariak:
 - Bezeroek hilero kosmetiko sorta bat jasotzeko aukera izango dute, eta horrek diru-sarrera etengabeak sortzen ditu, bezeroek hilero ordainduko dutelako. Hauda, kaxa bat makillaje produktu batzuekin gure bezero fidelentzako, eta egitea deskontuak noizean behin, bezero gehiago erakartzeko.

Zenbat eta nola ordaintzen dute bezeroek?

Bezeroek bi modu ezberdinetan ordaintzen dute:

1. Ordainketa bakarrekoa:
 - Bezeroek produktuak erosi eta ordaintzen dituzte aldez aurretik. Hau da, erosketa bakoitzak diru-sarrera bat ekartzen du.
2. Ordainketa errepikakorren bidez:
 - Bezeroek hilero ordaintzen dute harpidetza baten bidez, eta horrek etengabeko diru-sarrerak ekartzen dizkigu.

Prezioak eta diru-sarrerak

1. Prezio finkoak:
 - Produktuak prezio zehatz batekin saltzen ditugu. Bezeroak prezio hori ordaintzen du eta guk diru-sarrera bat lortzen dugu.
2. Prezio dinamikoak:
 - Denbora edo promozioaren arabera, prezioak aldatzen dira, eta horrek bezero gehiago erakartzen ditu, adibidez prezioak jaiztea noizean behin, neguan eta udan, prezioak aldatzea joatea.

Beste diru-sarrera iturriak

- Aktiboen salmenta:
Gure produktuen salmenta zuzena, prezio finkoetan.

- Erabilera sariak:
Bezeroek gure produktuak erabiltzeagatik ordaintzen dute.
- Alokairuak eta maileguak:
Produktuak alokatzea edo maileguan ematea, eta horretatik diru-sarrerak lortzea.
Alkilatu ahal dugu makillaje eskuilak irakargi bat egiterakoan makillaje eskuilak beharko dugu gure produktuak ipintzeko modeloaren aurpegian, eta horrela ondo ikusiko da nola pigmentatzen duten produktuek.
- Lizentziak:
Beste enpresek gure produktuak erabiltzeko ordaintzen duten dirua.